



ABALTZISKETA

BEHEKO KALEKO LOKALEN ESKAINTZA

Abaltzisketako Udalak beheko kalean duen eraikin berriaren barruan egokitzapen eta ekipamendu lanak burutzeko prest dago. Baina egokitzapen eta ekipatze lanak alferrikakoak gerta ez daitezten, dei hau banatzen da zera adierazteko:

Herrian norbait egongo balitz, bere kontura jardueraren bat abian jartzeko asmotan edo desiotan, udalarekin harremanetan jartzea eskatzen da.

Bertan burutu daitezkeen jarduerak, besteak beste, dira: janari, garbigailu, edari, e.a. denda, bertako produktu berezien salmenta, edo eta, norberak sortu edo pentsa dezakeen jarduera, beti ere, ingurunearekin bat datorrena baldin bada.

Beraz, herrian, bere kabuz edo talde batek bere jarduera jarri nahiko balu, hemen aukera bat eskaintzen da, eta interesa duenak, **APIRILAREN 24RAKO** udalean izena eman edo agertzea eskatzen da.

Abaltzisketan, 2015eko apirilaren 16an.